

sukaldea

9

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOA

Arriskuak ebaluatzea: prozesu honen bidez, lanek eraginda sortutako kalteak identifikatu eta baloratzen dira eta horiek ezabatzeko eta txikiagotzeko ekintzak definitzen dira.

Laneko ekipoa: lanean erabiltzen den edozein makina, gailu, tresna edo instalazio.

Norbera babesteko ekipamendua - NBE: lanean bere osasuna edo segurtasuna mehatxa dezakeen arrisku batetik edo batzuetatik babesteko, langileak heldu edo eraman behar duen edozein ekipamendu, bai eta horretarako den beste edozein osagarri ere.

HORREKIN LOTURIKO ARRISKU NAGUSIAK

EBAKIAK - HARRAPATZEAK

- Sukaldeko ekipa desberdinak erabiltzean eta garbitzean eginiko ebakiak.

ZIPRIZTINAK - ERREDURAK

- Ukipen termikoa ekipa desberdinekin elikagaiak prestatzen edo eramaten diren bitartean.
- Likido desberdinen zipriztinek eragindako erredurak.
- Babestu gabe edo egoera txarrean dauden ekipoetako zati beroekin egindako erredurak.
- Laneko ohitura txarrek sortutako erredurak.

ZAMAK MANEIAITZEA

JARRERA DESEGOKIAK - GAINESFORTZUAK

- Horrelakoak: behartuak, makurtuak, tenkatuak, egoerak eta instalazioetako ezaugarriek behartutakoak.

ARRISKU ELEKTRIKOA

- Sukaldeko instalazio elektriko eta ekipoekin honako hauei esker izan daitezkeen ukipen elektrikoak: bereizi gabeko garbiketak, ekipoak garbitzean zati elektrikoak ez babestea, korrante-hartune ase egotea, elementu elektrikoak esaterako, kableak, larakoak, egoera txarrean egotea.

SUTEA EDO LEHERKETA

- Gas, elektrizitate eta presiozko ur-lurrunarekin lan egiten duten ekipa eta instalazioengatik sute- edo leherketa-arriskua.
- Zerbitzukoak ez diren langileek konpontze-, garbiketa-lanak, ...egiteko orduan eragindako sute-arriskua.
- Sute-arriskua laneko ohitura txarrek eragindakoa.

ARRISKU KIMIKOA

- Koiepagabetze- eta garbiketa-produktuak ukitzea edo horien eraginpean egotea.
- Segurtasun-datuei buruzko fitxak eskura ez izatea. Substantzien arriskugarritasun-ezaugarriak ez ezagutzea.
- Biltegitratze desegokiak.
- Lan segururako metodoak eta prozedurak ez ezagutzea.

BESTELAKO ARRISKUAK

PERTSONAK ERORTZEKO ARRISKUA

- Lurra bustita, zikinduta edo desberdinduta egoteagatik irristatzea.
- Pasabideetan dauden edo gurutzatzen dituzten objektuekin estropezu egitea.
- Erortzeko arriskua laneko ekipoak zerbitzuko leku desberdinetan biltegitratuta egoteagatik, leku altu edo ezegonkorretara igotzeagatik.

OBJEKTUAK ERORTZEKO ARRISKUA

- Osagarriak, ekipoak, etab. erortzeko edo iraultzeko arriskua.

TALKA EGITEKO ETA KOLPEAK HARTZEKO ARRISKUA

- Zerbitzuko instalazioetan sukaldeko ekipo desberdinekin.
- Sukaldeko zerbitzuko instalazioetako kanpo aldean: janari-orgak solairuetara eramatean (motoz edo motorik gabe) ohatila, orga, pertsona, eta abarrekin talka egitea.

ERREPIKATZEN DIREN MUGIMENDUAK

- Horrelako lanetan egiten direnak: elikagaiak moztea, zartagin baskulagarrietako biraderekin egindako mugimenduak, platerak jartzeko zintan egin beharreko lanak, mahai-tresnen muntatzailea, etab.



PREBENTZIOA

MOZTEKO ARRISKUAREN AURREAN

- Egiaztatu **produktuak, materialak eta ekipak ondo daudela** (labanetako kirtenak, guraizeak, etab. heltzeko oinarri sendoa duten heldulekuak eta ondo zorrozutako ahoak, koipeztatutako gurpilak, etab.)
- **Ez kendu ekipoetako segurtasun-gailuak.** Ebakitzeko ekipoetan bultzagailuak erabiltzea gomendatzen da.
- Ziurtatu ebakitzeko ekipoa oinarriaren gainean ondo jarrita dagoela.
- **Erabili** lan edo ebaki beharreko gai bakoitzari dagokion ekipoa.
- Saiatu pasaguneetatik aparte gelditzen den **toki libre nahikoa** erabiltzen ebakitze- eta garbiketa-lanak egiteko.

ZIPRIZTIN ETA ERREDURA ARRISKUAREN AURREAN

- **Likido beroak maneiatzean** (ura, kafea, saldak, olioak, pureak, etab.), erabili pasaguneetatik aparte gelditzen den eta **nahikoa leku** duen tokia.
- **Saiatu** kazola, lapiko, eta abarren barruan tenperatura altua har dezaketen **sukalde-tresnarik ez uzten**.
- **Itxi** kazoletako, zartaginetako, eta abarretako **tapak**, zipriztinak saihesteko eta saiatu ontziak beren edukieraren 2/3 baino gehiago ez betetzen.
- **Mantendu** kazoletako, zartaginetako, eta abarretako **kirtenak** lanean ari zaren lekutik **barrualdera**.
- **Eskularruak eta mahukak erabil itzazu** bero dauden ekipak heltzeko edo maneiatzeko. Ez erabili eskutrapurik.

ZAMAK ERABILTZEKO ARRISKUAREN AURREAN

- Zamak maneiatu aurretik, **prestatu ibilbidea** eta kendu oztopoak.
- Zamak eramateko, **erabili** eskura dituzun **ekipo mekanikoak**.
- Prestatu aldeztu aurretik zamaren maneiatzea: saiatu altxatzeko nahikoa leku uzten, eta jarri ekipo mekanikoa zamaren ondoan.
- Ahal izanez gero, **zaitu zama** edo murriztu erabili beharreko ontzien tamaina.
- Zama astuna bada, eskatu laguntza lankideei.

JARRERA DESEGOKIAK IZATEKO EDO GAINESFORTZUAK EGITEKO ARRISKUEN AURREAN

- **Orgak kargatzen eta deskargatzen diren bitartean, utzi balazta jarrita.**
- Saiatu bete beharreko **orga zure aurrean** jartzen birak saihesteko.
- **Bultza orgak atzetik bi eskuekin** lagunduz.
- **Saiatu** orgekin **malden** edo hustubide-sareten gainetik **ez pasatzen**.



ARRISKU ELEKTRIKOAREN AURREAN

- **Erabili instalazioak eta ekipok behar den bezala.** Saiatu mahukarekin ekipo elektrikoak, koipeztatutako piezak, etab. bereizi gabe ez garbitzen.
- Saihestu lapurren eta luzagarrien gehiegizko erabilera.
- **Deskonektatu ekipoak eta babestu atal elektrikoak:** motorra, entxufeak, etab. desmuntatu, garbitu edo erabili aurretik.

SUTE EDO LEHERKETA ARRISKUAREN AURREAN

- Ziurtatu sukaldeko gasa ixteko giltza itxita gelditzen dela lanaldia bukatzean.
- **Konpontze-** eta **mantentze-**lanetan **itxi gasa** ixteko **giltza**.
- Olioak daukan ontziak su hartzen badu, ez itzali urarekin, tapa ezazu.
- Mantendu produktuak su-puntu eta bero-iturrietatik urruti.

ARRISKU KIMIKOAREN AURREAN

- Ezagutu erabiltzen dituzun produktuak.
- Saiatu **produktu arriskutsuak** pasabidea ez den eremu batean, **ondo aireztatuta** dagoen eta **argi nahikoa** duen eremuan erabiltzen.
- **Erabili ondoren, itxi produktu kimikoen ontzi guztiak.**
- Ez erabili modu desegokian produktu kimikoen ontziak (esaterako, ontzi-garbigailua dagoen lekuan bidoiak atek irekita mantentzeko erabiltzea).
- **Prest eduki gutxieneko stocka.**
- Biltegitratzean, **kontuan izan produktuen arriskugarritasun-ezaugarriak** eta beren bateraezintasunak. Bereizi produktu sukoiak eta korrosiboak gainontzekoetatik, batez ere baporeak sortzeko aukera badago.
- **Ez biltegitratu produktu kimikoak hondakinekin nahastuta**, beren izaera edozein dela. Bereizi beteta eta hutsik dauden bidoiak.
- Ez biltegitratu produktu kimiko berriak arduradunak espres emandako baimenik gabe.

ORDENA ETA GARBITASUNA

- **Mantendu zorua garbirik eta lehorturik.** Garbitu berehala gerta daitezkeen isuriak, zipriztinak, etab.
- Mantendu **txukun**. Kendu zorutik pilatuta dauden ekipoak edo materiala.
- Ez gaintitu pilatutakoaren muga. Ez bada ezagutzen, ez pilatu batzuk besteen gainean (puskatu litezke eta).
- Garbitu berri diren aldeetan seinaleak jarri.



INFORMAZIOA

- Bete ekipoetako **erabilera-arauak**.
- Aurkitutako hutsuneen berri eman (ekipoak eta instalazioak).
- Erabili aurretik, eskura izan produktuaren **Segurtasun-datuen Fitxa** (xaboia, detergenteak, deskoipetzailak, labeak garbitzekoak, etab.). Izan ezean, zure erdi-mailako arduradunari eskatu. Erabili aurretik, irakur ezazu eta **jokatu bere jarraibideen arabera**.
- Eskura izan beharrezkoak diren lan-protokoloak.
- Errespetatu lan seguruaren arauak.
- Haurdun bazaude edo izateko aukera baduzu, Laneko Osasunean kontsultatu.

LANEKO OHITURA ONAK HARTU

- Lehortu ondo eskuak mozteko ekipoak erabili aurretik.
- Ez erabili eraztunik, eskumuturrekorik, etab.
- Ez utzi ekipo ebakitzailerik edo zorrotzak, esaterako, labanak, guraizeak, edozein lekutan edo armairuetan metatuta.
- Gorde itzazu babestuta.
- Eraman denbora guztian **laneko arropa loturik** eta ileak jasota, lepokoak edo mahuka zabalak saihestuz.
- Erabili **mahuka luzeko alkandorak** larruazalean zipritinik ez izateko.
- NBE egokiak erabili: eskuzko ekipoekin mozteko orduan: **eskularruak, sare metalikoko mahuka-erdiak** eta **sareko mantalak**; erretzeko arriskuaren aurrean, **eskularruak eta beroaren aurkako mahuka-erdiak**; erortzean, **oinetako itxiak eta zoru ez labaingarriak** dituztenak; kolpeak, **punta indartuta** duten oinetakoak; produktu kimikoak erabiltzean, erabili segurtasun-datuen fitxetan jasotakoak.
- Ekipoak eskuz garbitzeko, erabili **eskularru egokiak** eta **mantal iragazgaitza**.
- **Babestu** irekita **dituzun zauriak**, toxikoak sartzea laguntzen baitute.
- Produktu kimikoak erabili ondoren, **garbitu itzazu eskuak**. Ahal dela, ur askorekin eta detergente batekin. Ez erabili sukaldeko garbiketa-produktuak norberaren garbiketarako.

BESTELAKO NEURRIAK

- **Errespetatu** zure lankideen **lan-eremuak**.
- **Kasu egin seinaleei** (ez erre, errespetatu garbitu berri diren eremuak, etab.).
- Zure eskura dauden ekipoak erabili.
- Orgak erretiluz beteta ez badaude, ikuspena errazte aldera, kargatu orga goiko aldea libre utziz. Ahal den guztietan, saiatu orga bi langileren artean eramaten.
- Errespetatu elikagaiak banatzeko ezarritako zirkuituak.
- **Txandakatu jarduera muskular desberdineko lanak**.
- Luzatze-ariketa desberdinak egitea gomendatzen da.